

1. Artikulua.

Udalerrriaren eremuan emakumearen problematikarekin lotuta dauden arazo guztien partizipazio, eztabaida eta gestiorako organo kolegiatu moduan eratu da Emakumearen Saileko Udal Kontseilua.

2. Artikulua.

Helburu hauek ditu Kontseiluak:

- a) Kultur eremuan eta kultur jakintza egin eta ezagutzera emateko prozesuetan, emakumeen partizipazio berdina bultzatzea.
- b) Kualitatiboki eta kuantitatiboki orekatzea emakumeen partizipazioa lanaren eremuan.
- c) Emakumeen irudi soziala zabaltzea, oraingo errealitatera egokiturik.
- d) Etxeko ardurak berdintasunez banatu daitezen bultzatzea.
- e) Gizartean eta politikan emakumeen partizipazioa gehitzea.
- f) Marginazio prozesuen ondorioz kaltetutako emakume taldeak gizarteratzea: pobretasunaren feminizazioa, bakarrik dauden emakumeak eta/edo famili karga dutenak, bortxakeria kasuak...
- g) Emakumeentzako oinarritzko zerbitzu espezifikoak gehitzea: gizarte eta osasun alorreko zerbitzuak.

3. Artikulua.

Aurreko helburuak betetzeko, eginkizun huek izango ditu Kontseiluak:

- a) Emakumearen politika zabal bat diseinatzea herrian; sailen arteko programa batean oinarriturik, udal kudeaketaren eremu guztiak inplikatzeko saiaturiko den programa.
- b) Udalari, Gizarte Agenteei, Enpresei eta GEEei aholkua ematea aukera berdintasunei buruzko ekimen eta legeria gaitan.
- c) Udala eta Gizarte Agenteen artean bitartekari jardutea, aukera berdintasunari buruzko gai guztietan.
- d) Arrasateko Udala eta (EMAKUNDE) Emakumearen Euskal Erakundearen arteko elkarlanaren alde egin eta elkarlana bultzatzea, emakumeen Aldeko Ekintza Planaren esparruan.
- e) Gure herrian emakumeen egoera zein den aztertzea.
- f) Gizarte Ongizatea, Enplegua, Gazteria, Hezkuntza eta beste hainbat udal sailekin kolaboratzea, emakumeenganako asmo txar eta marginazio egoerak aurrikusi eta zuzentzeko.
- g) Sentsibilizazio kanpainak bultzatzea; udalerrri barruan jarrera diskriminatzaile eta estereotipo sexistak aldatzea da horien helburua.

4. Artukulua.

Kide hauek osatzen dute Emakumearen Saileko Udal Kontseilua:

- Kontseiluburua:

Emakumearen Saileko Zinegotzi Ordezkarria, edo berak delegatzen duen pertsona.

- Kontseilukideak:

- Udalean ordezkari izan den alderdi politiko bakoitzetik zinegotzi bat (Kontseiluburuaren taldeak izan ezik).
- Herriko emakume elkarte bakoitzetik ordezkari bat.

- Idazkaria:

Aukera Berdintasuneko udal agentea.

5. Artikulua.

Hizpideaz eta boturik gabe, Kontseiluak hartarako eskatzen dituen teknikari adituak etorri ahal izango dira bileretara.

6. Artikulua.

Eginkizun hauek izango ditu bereziki Kontseiluburuak:

- a) Kontseiluaren eztabaidak deitu, bideratu eta zuzentzea.
- b) Kontseiluaren egitekoak bultzatu eta koordinatzea.
- c) Kontseiluaren legezko ordezkari izatea.
- d) Bilkura bakoitzeko gai-zerrenda egitea.

7. Artikulua.

Eginkizun hauek izango ditu bereziki Kontseiluaren idazkariak:

- a) Bilkura bakoitzaren deialdia egitea.
- b) Kontseiluaren bilkura guztietako akta idatzi eta jasotzea.
- c) Dagokion informazioa bidaltzea Kontseilukideei.
- d) Kontseiluburuarekin batera, Kontseiluaren gai-zerrenda prestatzea

8. Artikulua.

Arrasateko Udaletxea izango da Emakumearen Udal Kontseiluaren egoitza.

9. Artikulua.

Hilean behin ohizko bilkuretan bilduko da Kontseilua, eta aparteko bilkuretan kontseiluburuak edo botua emateko eskubidea duten kideen heren batek hala iritzi dezakeenean.

10. Artikulua.

Kontseiluburutzak egingo ditu Kontseiluaren deialdiak, idatziz, gutxienez bost egun lehenago ohizko bilkuretarako eta bi egun lehenago aparteko bilkuretarako.

11. Artikulua.

Dagokion akta jasoko da bilkura bakoitzean; bertara etorri diren pertsonak, noiz hasi, noiz amaitu eta non egin den, erabaki diren gaiak eta, egonez gero, botazio emaitzak jasoko dira aktan.

12. Artikulua.

Araudi honetan aurrikusten ez denerako, Toki Erakundeen Antolamendua, Funtzionamendua eta Lege Araubideari buruzko Araudiak xedatutakoa hartuko da kontuan.